

DEMOKRAZIAREN ALDE ETA POLIZIA-EREDUA BERRIKUSTEAREN ALDEKO MOZIOA

Azken asteotan, Euskal Herriko hainbat tokitan zenbait erakunde eta ordezkari publikoen aurkako hainbat gertaera eta adierazpen izan dira, adierazpen askatasunaren eta espazio publikoaren errespetuaren muga onargarriak gainditu dituztenak. Udal hau ez dator bat jarduteko modu horiekin, eta uste du modu egokian baztertu behar direla, axolagabekeria eta gehiegizko jardun interesatua saihestuz.

Illo horretan, Udal honek gaitzetsi egiten du gertakari horien instrumentalizazio politikoa, kritika sozial eta politiko osoa kriminalizatzeko, bai eta bidezko protesta ere. Logika bat inposatu nahi da, non indar polizialekiko edo horiek zuzentzen dituztenekiko ezinegon edo zalantza adierazpen oro eraso onartezintzat interpretatzen den automatikoki, eta hori printzipio demokratikoen aurkakoa da.

Polizia-kidegoen jarduera kritikatzeari, haien funtzionamendu-eredua zalantzan jartzea edo abusu-gertakariak salatzea ez da bizikidetzaren aurkako eraso. Bizikidetzaren aurka egiten duena disentsorako espazio oro ixtea da, erakundeak kritikaren aurrean blindatzea eta erakundeen gaitzespenaren balioa hutsaltzea.

Gertakari horiek neurrigabeki dimentsionatzen diren bitartean, herritarren bizi-kalitateari eragiten dioten sakoneko eztabaidak isilarazten dira: Osakidetzaren endekatzea, etxebizitza-larrialdia, z a i n t z a - k r i s i a e d o desproporzionatutzat jotako polizia-interbentzioekiko kezka sozial gero eta handiagoa.

Arkautiko Akademiako zuzendariak, bere taldearekin batera, dimisioa eman berri du, barne-erresistentziekin talka egin ondoren. Horrek erakusten du sistemak egiturazko berrikuspena behar duela.

Horregatik guztiatik, Bergarako Udaleko Plenoak, honako hau ADOSTEN DU:

ehbildu

- 1.-Erakundeekiko errespetuaren edo adierazpen-askatasunaren bidezko erabileraren mugak gainditzen dituen jarduera oro gaitzestea.
- 2.-Kritika politiko eta sozial legitimoa eta herritarren protesta kriminalizatzeko, izaera horretako gertaera puntualak erabiltzeko saiakera erabat baztertzea.
- 3.-Berrestea kritikarako eskubidea, baita polizia-indarrekiko ere, edozein demokrazia osasungarriren muinaren parte dela, eta ezin dela murriztu edo deslegitimatu.
- 4.- Eusko Jaurlaritzari eskatzea polizia-eredua sakon berrikusteko hausnarketa eta herri prozesua abiatu dezala, gardentasuna, kontrol demokratikoa, proportzionaltasuna eta zerbitzu publikoa bermatzeko.
- 5.-Indar politiko guztiei dei egitea eztabaida instituzionala herritarrei eragiten dieten egiturazko arazoetan zentratzera, hala nola, osasun publikoa, etxebizitza, zainketak, lan-eskubideak eta polizia-eredua.